

## PROGRAMAZIOAREN LABURPENA

### HELBURUAK

1. Musika lanaren pertzepzioa (entzumena, ikusmena, interpretazioa) lantzea modu aktibo batean erreperitorio ezberdina erabiliz.
2. Musika analisia egin entzunaldietatik eta irakurmenetik abiatuta.
3. Musika analisirako behar den lexikoa /terminologia zehaztasunez erabiltzea.
4. Anlisiaren bitartez, musika praktika erraztea eta musika praktikoaren bidez, musika analisia egitea
5. Musikarekiko ikuspegi irekiago bat lortzea zentzu kritikoaren bitartez.
6. Musikan agertzen diren elementu guztiak antzematea: forma, doinua, erritmoa, harmonia, ehundura, tinbrea, dinamika.
7. Musika ezaugarriak kontuan hartuta, genero, estilo eta garai batean kokatzen hastea.

### EDUKIAK

1. Analisia oinarrizko hiztegia (egitura, doinua, harmonia, erritmoa, ehundura, tinbrea)
2. Musika egituratzen dituzten elementuak: errepikapena (erritmo, doinua, harmonia), esaldia, azpi-esaldia, gaia, motiboa, kadentziak.
3. Egitura:doinu agerpena eta errepikapen (zehatza edo ez) arabera, forma bitarra, forma hirutarra, sonata, fuga, blues, eta abar.
4. Sistema tonala: eskalak (maiorra), armadurak, akordeak eta inbertsioak, harmonia funtzionala.
5. Kadentziak: kadentzia motak (perfektua, plagala, semikadentzia, apurtua,...)

6. Bitarteak eta akorde motak: maiorrak, minorrak, gutxituak eta gehituak. Akorde alterazioa.
7. Eskalak: minorra (naturala, harmonikoa, melodikoa). Kadentziak.
8. Akordekoak ez diren notak (apaindurak): florea, pasoko notak, pedala
9. Ehundura: monofonikoa, polifonikoa, homofonikoa, kontrapuntistikoa.
10. Entzunaldiak eta partiturak analizatzeko prozedurak.
11. Musika praktika aurreko edukiak kontuan hartuta: kitarra, pianoa, ahotsa.

#### KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA TRESNAK

1. Azterketa idatziak: Bi atal izango ditu
  - a. Terminoen definizioa
  - b. Partituraren/entzunaldiaren analisisaAzterketak ebaluaketaren %60a suposatuko du
2. Klaseko lana eta jarrera: Ikasleak egindako lana eta irakasgaiarekiko duen jarrera kontuan hartuko da. Atal honen balioa %40koa da. Klasera ez etortzeak edo puntualtasun faltak eragina izango du atal honetan.
3. Irakasgai honetan ebaluazio jarraia izan arren berreskurapena egingo da.
4. Irakasgaiaren azken emaitza, hiru ebaluaketan arteko batazbestekoa eginez aterako da. Kontuan hartuko da ikasleak izandako bilakaera.
5. Hirugarren ebaluketa ondoren, ikaslea kurtso osoko azterketa egiteko eskubidea izango du. Azterketaren nota maximoa bostekoa izango da. Ikasleak nota altuagoa izango du baldin eta zazpitik gorako emaitza ateratzen badu. Kasu honetan, kurtsoko azken emaitza seikoa izango da.